



**SORGINBASOA**  
**JOHN BUCHAN**

ITZULPENA: ARITZ BRANTON



# BOOKTEGI

*Guztion liburuak, guztiontzat*

<http://www.booktegi.eus/>

# SORGINBASOA

## JOHN BUCHAN

ITZULPENA:  
ARITZ BRANTON

Denbora, aitonak esaten zuenez, geldirik zegoen haren haran hartan. Baina esapide horren egiatasunak ez zuen berak baino luzeago iraun: aitonaren hilobiaren gainean zeuden bitxiloreak ihartu orduko, mundu berri bat ari zen ate-joka. Hori duela hogeita hamar urte gertatu zen, eta, gaur egun, bukatuta dago iraultza. Parrokiaren izena aldatu egin dute; eliza – harana bi mendetan zehar zaindu zuren kutxa zuria– eraberritu egin dute, adreiluzko estilo gorri aspergarri bat ezarriz; orain, trenbide nagusi bat dago Aller ibaiaren ertzean barrena, eta horren gainean dabilen zerbitzu bikainak ehun miliatik ekartzen ditu udatiarrak; etxeak eta dendak Oreinmendiko itzalpean taldekatu dira; ospe oneko barnetegi bat dago gazteentzat; bi ostatu, biak zaharberrituta; auto-lantegi bat eta banketxe bat.

Orain, gunerik garrantzitsuena ez da herri zaharra, berria –geltoki ondoan dagoena– baizik, eta, herri zaharrean, lastoz egindako teilatu batzuk baino ez daude, erreka baten ondoan barreiatuta. Gizakiaren etsairen batek estolda bat bezain zuzen joaten irakatsi dio errekarari eta porlanezko zubi bat jarri du haren gainean; etxeetako lastozko teilatuak xafla berde metalikoz ordezkatu dira. Elizako esparru zaharreko hondakinetan bakarrik ez dute muturra sartu; horiek gogoratzen ditudan bezalaxe daude, belaunetaraino iristen diren lapaitzez eta osinez inguratuta, eta birrintzen ari den morterorik gabeko hesi batez Crossbasketeko behi ikusnahiengandik babestuta.

Jende zaharra ere joan da eta haien izenak ere desagertzen ari dira eskualdetik. Hawkshawtarrak ni jaio baino askoz lehenago desagertuta zeuden Kaledoniatik; hamazazpigarren mendean, Edinburgoko familia burges errespetagarri bat etorri zen; orain, familia horrek mendebaldeko leinu baldarrago bati utzia dio lekua.

Orain, baserritar gehienak berriak dira, eta laborariek ere –zeinen leinuek iraunkorragoak izan behar bailukete– mugitu egin dituzte beren hezur motelak. Postariak jakinarazi dit gaur egun Woodileen ez dagoela

Monfriestarrik, Pennecuiktar bat bakarra dagoela eta Ritchietar eta Shillinglawtar bina baino ez daudela; garai batean, berriz, oso ugariak ziren abizen horiek.

Hain eraberrituta dagoen mundu batean, alferrikakoa zen haurtzaroan txunditu ninduten kontakizunak bizirik aurkitzeko itxaropena izatea. Inork ere ezin zidan esan noiz eta zergatik bihurtu zen hondakin Crossbasketeko lokaztiaren ondoan dagoen eliza, eta barrabasek hilarriak estali. Gehienek ez zekiten eliza izana zela ere.

Horrek ez ninduen harritzen, Woodileeko elizak ia hiru mende zeramatzan-eta erabili gabe: txikia nintzenean ere, lagun gutxik zekien azken artzainaren berri ematen. Afera kontakizuna izateari utzia zion, eta 'lelo' hutsa bihurtua zen orain; guztiek bazekiten zerbait, baina gutxik azal zezaketen esanahia.

Nire jakin-mina Jess Blanek, baserri-arduradun baten alabak akuilatu zuen lehenengo aldiz. Nik egindako zerbaitek sumin-zurrumbilo batean murgilduta, erregutu egin zuen Woodileeko artzainari geratu zitzaiona niri ere gerta zekidala, eta hori, esan zidanez, ni "deabruak harrapatzea eta berarekin eramatea" izango zen.

Beldurtu samar, umezainari eraman nion kontua, eta hark, erabat asaldatuta, "buru-huts lotsagabetzat" jo zuen Jess, "umeen burua gezur beltzez betetzen dituen horietakotzat". "Ez beldurtu, maitea", lasaitu ninduen. "Deabrua ez zen Woodileeko artzainaren bila etorri. Beti entzun dut gizon ona eta lagunkoia zela. Maitagarriak etorri ziren, bihotza. Eta, horiekin, pozik bizi izan zen eta pozik hil, eta ez zitzaion inoiz ezer falta izan".

Gogoan dut informazio hori jolaskideek osatzen genuen klani eraman niola; beren etxeetan hedatu zuten eta baieztapenak edota ezeztapenak jasota itzuli ziren. Batzuek deabruarenari eusten zioten; beste batzuek, maitagarrienari; beraz, agerian geratu zen tradizioak bi ahots zituela. Maitagarrienok besteak baino gehixeago ginen, eta, apirileko iluntze batean, hondoratuta zegoen eliza ondoan izan genuen borrokan, deabruarenak menderatu egin genituen eta gure bertsioa kanonikotzat jarri. Baina, datu bakar hori izan ezik –Woodileeko artzaina maitagarriekin alde egin zuela–, kanona hutsik geratu zen.

Urte asko geroago, liburu eta leku anitzetan aurkitu nuen kondaira: Herbehereetako unibertsitate batean zegoen inkunabile batean; Lancashire konderriko familia katoliko baten liburu-gelan; Wisharten *Montrose* liburuaren bigarren edizio batean egindako ohar batzuetan; Hebronon

kapitain baten eta Londreseko eskularru-egile baten egunkarietan; neska galestar baten ikasliburuan.

Kontakizuna ondo samar osatu ahal izan nuen, baina kostatu egiten zitzaidan ezagutzen nuen Woodileen kokatzea. Paisaia hori zibilizatua zen, misteriorik gabea, zedarrituta, misteriorik gabea: konifero aukeratuz osatutako basoek –metodikoki landatuek– eta harrizko hesi matematikoen inguratzen zituzten muino-tontor biluziak, sasoi batzuetan, goibelak, baina, normalean, Pickwick jaunaren burusoiltasunaren antzekoak; haranaren hondoa, larre lerrotuak; erreken neurritasuna arretaz drainatuta zegoen eskualde hartan; herriko beira, harri eta metal dotoreak...

Egia zen Aller ibaiak etxekotu gabeko erreka ederrak iragaten zirela handik bi miliatara; horrez haraindi, zelai ilunen gainean altxatzen ziren muinoak, zeruaren erdiraino, eta Rood ibarrak ezpata bat sartzen zuen zeruaren bihotzean. Baina Woodilee bera... Nortasuna nora joan zitzaion? Antzina (liburuetatik nekien), Melanudrigillgo baso handia goitik jaisten zen eta, olatu beltzez osatuta, herriaren ertzak ere ziprizzintzen zituen. Baina, asfaltozko errepide distiratsuak, pil-pilean zeuden telegrafo-kableak, etxebizitza txukunak, larre perfektuak eta zainduak baino zainduagoak ziren basoak ikusita, ezin nuen irudi hori berreskuratu.

Halako batean, iluntzean, Oreinmenditik, beste modu batean ikusi nuen. Zerua berunezkoa zirudien, bitxia, eta, ilunabar aldera, ostarte urdin bat zekarren; beraz, itzalak era bitxian ageri ziren.

Hasieran, zera pentsatu nuen, hain ondo ezagutzen nuen lekuari begira nengoela: jenerala izan banintz, eta kanpainan ibili, Woodileeri arreta handia emango niokeen, talaia bat zelako. Eskoziako erdigunea eta hegoaldea lotzen dituen mendatearen erdian –errepideen eta ureen igarobidean– zetzan eta –esango ote dut?– espirituaren igarobidean, muinoen zintzurrean baitzegoen, ereiten den lurraldearen eta basamortuaren artean.

Ekialdera begiratu nuen, eta, nire ezkerretara eta atzean, muino irekiak zeuden –zeinen azken zentimetroa ere aprobetxatuta baitzegoen– eta antzinako Manann eskualdea, Piktoen lurralde nagusia. Zeruertza mozten zuen ikatz-meategiaren goialdeak, garrantzirik gabeko muinoak, zelai kuadroak... ez zuten lortu eskualde horrekiko lilura baretzea, eta, iluntze hartan, bazirudien antzinako gauza bati begira ari nintzaiola; otso baten gisakoa zen, baina, oraingoan, ardi-larraz moztortuta...

Muino handiak eskuinetara pilatuta zeuden; hantxe zituzten gure erreka guztiek sorburua. Horiei aldaketa gutxi ekartzen zieten eguraldiak eta denborak; baina argi misteriotsu horrek siluetak bortizki erakusten zituen eta xehetasunak ezkututzen, eta, hala, muinoek urrunegiak eta beldurgarriegiak ziruditen nirekin egunero hitz egiten zuten haran horietako erraldoi atseginak izateko. Nire oinetatik behera, Woodilee zegoen, eta mirari bat gertatu zen: bazirudien ilunantz bat –eklipse baten itzala bezalako– oharkabean jarria zela parrokiaren gainean. Irudipen bat ikusi nuen, eta argi nuen hala zela, baina nire buruak onartu egin zuen ikusi nuena, bilatzen ari nintzen irudipena eman baitzidan.

Orain dela hirurehun urteko Woodilee zen. Eta nire buruak, abian jarri eta gero, irudipenez jotako begiek ikusten ez zituzten gauzak ikusten zituen horien ordeez... Ez zegoen errepiderik, bideak bakarrik –lokaztietan, istiltsuak eta muinoetan, harrizkoak–, eta Edinburgora joaten ziren alde batetik, eta Carlisle-ra, bestetik. Etxe bakan batzuk ikusi nituen, zohikatza bezain marroiak, baina, elizalde zaharraren muinoaren gainean, elizaren lau hormak ikusi nituen, eta, haren ondoan, artzainaren etxea, intsusaz eta lizarrez inguratuta.

Orain, Woodilee ez zen eguzkiaren eta haizearen begietarako parrokia ireki bat. Baserriez osatutako nahaspila bat baino ez zen; alimalekoa eta iluna zen, zerbaitek lotuta eta zanpatuta; horrek, muinorik garaienak izan ezik, beste guztia estaltzen zuen; mendi-bizkarrak indargetzen zituen; haranak itotzen; ia erreka ertzetaraino, gainezka egiten zuen; paisaia gainean zetzan, lurrera botatako larruzko beroki iletsu bat balitz bezala.

'Melanudrigill' izena etorri zitzaidan ahora eta banekien Woodilee hiru mendetan zehar inork ikusi ez zuen bezala ikusi nuela; garai haietan, bere izenak esaten duen bezala, Kaledoniako Basoaren hondar baten itzalpean zegoen oraindik ere; antzinako baso hartan, behinola, Merlinek harpa jo zuen eta Arturok bere tropa bildu...

Haranean, tren batek txistu egin zuen; katigamendu-etxola batean, argiak piztu ziren, eta ezabatu egin zitzaidan irudipena. Baina, trinkotzen ari zen ilunabarrean maldan behera nobilela, konturatu nintzen nire umezaroan ez zela Woodileen herria lehen inguratzen zuen basoaren oroitzapen osoa ezkutatu, Melanudrigill izena ahaztuta neukan arren. Jock Dodds zaharraren ahotsa neukan gogoan; berrogeita hamar urtez ibili zen Kaledonian basozain; errementeria ondoan zegoen harri handiaren gainean eserita, istorioak kontatzen zizkidan, eta nik gozatu egiten nuen horiek adituta. Bere aitaren

gainean hitz egiten zidan, baita aitaren aitari buruz ere; azken hura, fusil batez armatuta, heroi bat izan zen.

"Neguko goizetan, goroldioaren gainean edo zuhaitz batean gelditzen zen, eta, Clyde haranetik Allerrera etortzen zirenean, beltxarga basatiak eta antzara grisak harrapatzen zituen. Bai, eta orein ugari ere hiltzen zituen". Eta inguruan ez zegoela oreinik esaten nionean, Jockek burua astintzen zuen eta esaten zidan aitonaren garaian Basobeltz osoa ez zegoela erabat suntsituta. "Windywaysen, zati handi bat zegoen, eta beste bat, Reiverslawetik honantz".

Baina, Basoaren gainean gehiago galdetzen nionean, Jockek ez zidan gauza zehatzik esaten. Batzuen arabera, erromatarrek landatu zuten lehenbizi; beste batzuek esaten zuten Michael Scott zaharrak jarri zuela... "Piztientzat, ezkutatzeko leku ederra zen, baita aztientzat ere...". Basoaren galbidea aspaldi hasi zen, eta azken hondarrak erregai erabili zituzten Jocken aitaren garaian, Hamasei Eguneke Elurteko negu horretan...

Gogoratu nuen leku sakratuak eta beldurgarriak ere bazeudela oraindik. Udaberriko eta udako ilunabarretan, inor ez zen Mariaren Gurutzera –garoz inguratutako harri bat, formarik gabea– joaten, baina, San Juan egunean, eguerdian, neskek mendiko loreez apaintzen zuten. Woodilee errekan, bazegoen tarte bat, herriaren eta orain drainatuta dagoen Fennan Moss-en artean, non, jendearen ustez, amuarrainik ez baitzen inoiz agertzen. Baina batez ere aipatzekoa da Reiverslaweko arbi-zelai hoberenaren erdian zegoen iturria; umeok Katalina Egarria esaten genion, baina helduek, Apaizaren Iturria, eta, aipatzen zutenean, burua astindu edo hasperen egiten zuten: hortik atera omen zen Woodileeko artzaina mundutik eta maitagarrien lurraldera joan.

.....

David Sempillek Jaunaren mila seiehun eta berrogeita laugarren urteko abuztuaren hamabostean ekin zion Woodileeko apaizgoari.

Ez zen ezezaguna haranean, umetan oporrak aitonarekin ematen zituelako, hura Roodfooteko errotaria baitzen. Urte horietan, eliza bakoitzaren erabakiek lehentasuna zuten eta patroien ahotsek ez zuten hain garrantzi handirik: Sempill jauna, ziotenez, "herriak deituta" iritsia zen, eta, horren ondorioz, dei hori egin zuen parrokiak harenganako interes handia zuen.

Urtebete lehenago lizentziatu zen Edinburgon; ekaineko azken igandean ordenatu zuten Woodileen; abuztuko lehenengo igandean, Mungo Muirheaden ahots sendoak –Kirk Allerreko artzainak– ongi etorria eman zion sermoi batekin.

Daviden gauzak –gehienak, liburuak– zortzi zaldi handik ekarri zituzten Edinburgotik, eta, Carnwath Mosseko toki arriskutsuak saihestu ondoren, elizaren eta Woodilee errekaaren artean zegoen apaizetxe heze eta txikiaren goiko gela batean zeuden jarrita.

Alargun zintzo bat, Isobel Veitch izenekoa, aurkitu zuten etxea kudeatzeko eta, dena prest zegoela, lehengusuaren Newbigginen etxetik etorri zen David, behor grisaren gainean, etxean geratzera.

Woodilee ikusi zuenean, abestu egin zuen; etxeko erlaitzetik pasatzeko burua makurtu zuenean, otoitz egin zuen; baina ia negar egin zuen, esker onak eta poztasunak eraginda, gela txiki horretan –'estudioa' esaten zion– eseri zenean, maite zituen liburuak apaletan ikusi zituenean eta bere aurrean mahai hura –non lan handiak idatziko baitzituen– eta kanpoan, erdi beiratzatuta zegoen leihoan zehar, lorategiko andere-mahats zuhaixkak eta errekaaren zilarrezko izpiak ikusi zituenean.

Lehenengo ordua jabetza esploratzen eman zuen. Apaizetxea txikia eta mozkotea zen, eta, txilarrez egindako teilatuan, erle-kolonia batzuk zeuden. Aurreko aldeak elizara joaten zen errepidearekin egiten zuen bat, zerrenda berde eta estu batek izan ezik, zeinen ertzak errekatik ekarritako harri leun eta zuriez markatuta baitzeuden.

Atzean, lorategi bat zegoen, hogei bat sagarrondorekin; haren fruta hain txikia zenez, ia ez zuen merezi hura biltzea. Eta honako hauek ere bazeuden: arropa zuritzeko esparru berde bat, basa-gereziendo bat, eta lur zati bat, krabelinekin eta ira-belarrekin, eta beste bat, zauribelarrekin, txortaloekin, maioranarekin eta halako belar estimatuekin.



Apaizetxearen alde batean, garagardo-lantegi bat eta aletegi bat zeuden, soldata gisa jasotzen zuen janaria gordetzeko; beste aldean, zalditegi bat, bi abereentzat, eta hiru ukuiluko behitegi bat; buztinez egindako oilotoki bat, eta, eliza-esparruaren hesiek osatzen zuten angeluan, meta bat, lur-osinez inguratuta.

Barruan, etxea ez zen eroso, eta, abuztuko egun bero hartan ere, lurrezko zoruetatik gora etortzen zen hotza, indarrez. Atea irekitzea zen sabai baxuko sarreraren argi-iturri bakarra.

Eskuinetara, egongela zegoen: sabaia oholez jantzita zegoen; zorua egurrezkoa zen; igeltsuz egindakoak ziren horma zakarrak; artzainaren zortzi eguneko erlojua (John Atchisonek egina, 1601ekoa) hantxe zegoen; etxean egokituta zegoen dagoeneko.

Ezkerretara, Isobelen sukaldea zegoen, eta, handik, garagardo-lantegira joaten zen, ate batetik; sukaldeko atzealdean, Isobelen ohea zegoen, horman gordeta; eta soto txiki bat, txakur-txabola bat bezain txikia.

Goiko solairura, egurrezko eskailera batetik joaten zen; esku-eskailera bat bezain pikoia zen, eta artzainaren logelaraino ailegatzen zen: luxuzkoa zen hura, sutondoa baitzuen. Hortik, ate batek gonbidatuen logela bakarrera eramaten zuen; beste batek, sutondorik gabeko gela batera: artzainaren estudioa; une hartan, jabetzaren lekuri mirarigarriena zen gela hura Davidentzat.

David harat-honat zebilen, noraezean, eskolatik itzuli den mutiko bat balitz bezala, eta, egia esan, ez zirudien eskolako mutil bat baino askoz zaharragoa: harea-koloreko ile indartsua zuen, aurpegi gorrixka eta bizkar zuzen eta argala.

Garagardo-lantegian, hartzidura etenarazi zuen, eta, aletegian, bere arropa zikindu, eta itxura penagarria zuen. Etxetik kanpo, kezkatuta begiratzen zion Isobelek: David sagarrondoan fruta dastatzen ari zen eta errefusatutako aleak teilatu gainean zegoen arabazozoari botatzen ari zitzaizkion.

Orduan, Daviden deiadarrei erantzunez, Isobelek azpil bat ur ekarri zion, goizeko bidaiari pilatu zuen hautsa kentzeko. Abuztuko eguzkiak patio txikia berotzen zuen. Soinu guztiak inguru hartako eguerdiko burrunba lasaigarrian urtzen ziren: haraneko erreka soinua; elizako esparruko errementeriaren klaka; han urruti Windywaysen zeuden ardiak; krabelinetan zebiltzan erleak.

Davidek irribarre egin zuen, masailak igurzten zituen bitartean, eta Isobelen aurpegi zahar zimelduak –zeinak sagar baten antza baitzuen– beste irribarre batekin erantzun zion: "Bai, jauna", esan zuen, "gure bizitzak leku onuragarri eta atsegina batera iritsi dira. Jainkoari eskerrak!"

Davidek 'Amen' kartsu batekin erantzun zion, eta, eskuoihala airetatik itzultzen ari zitzaiola, atean entzun zen zalapartak Daviden lehenengo bisitarien berri eman zien.

Hiru ziren, ondoko parroketako artzainak: gazteari Woodileera ongi etorria ematera etorriak ziren, beren ponien gainean. Animaliak zalditegian eta behitegian gorde zituzten, eta hirurak arropa zuritzeko lur zatiaren ondoan zegoen banku zakarraren gainean eseri ziren.

Normalean, herrian bazkalduko zuten, Sempill jaunak ez zezala horientzat ezer presta, eta ez ziren horrela agertuko, aurrez jakinez gero abisatu gabe bazkaltzera gonbidatuko zituela. Baina amore eman zuten Isobelen aldarri abegitsua zela eta; emakumeari igoera soziala iruditzen zitzaion apaizetxean zen lehenengo egunean halako gertaera bat izatea. "Sempill jaunari jaunek hemen ez bazkaltzea lotsagarria irudituko litzaioke, oso...". Etxea ederki hornituta zegoela... Oraintxe oilo bat sartua zuela lapikoan... Basoilar pare bat –goiz horretan Chasehopetik bidali zituztenak– erretzeko prest zeuzkala...

Hirurek bihozberatasunez eta itxaropenez egin zuten irribarre. "Abigail aparteko bat duzu, Sempill jauna. Emakume aratza eta mehatza; Woodileeko apaizetxea ondo gobernatuko du".

Mungo Muirhead artzain jaunak bizkarrik gabeko aurpegi alimalekoa zuen, lepo argal baten eta gorputz trakets baten gainean. Ezpain meheak zituen eta ahoa abokatu batena balitz bezala ixten zen; sudurra, haragitsua; begi gris handiak, normalean, behi batenak bezain hausnarkariak ziren, baina, batzuetan, piztu egiten zitzaizkion, zuhurtasuna adieraziz. Larru zurbilekoa zen eta azkar burusoiltzen ari zen; beraz, lehen begi-kolpean, aurpegiak mendi perfektu bat ematen zuen, eta kolorerik gabeko azalak, zelai aldapatsua. Kirk Allerreko artzaina zenez, nagusia zen beste artzainen artean, eta, hirixka batean bizi zenari egokitzen zitzaion bezala, beltzez jantzita zegoen; lepagora zeraman eta txano beltz bat.

Ebenezer Proudfoot artzain jauna, eremuko Bold herrixkakoa, beste molde batekoa zen. Baserritar baten gisara, tweedezko arropa gris latza zeraman; eta, buruan, txapela urdina; haren oinetakoak lodiak ziren, larruzko

lokarriekin; antzinako polaina frisuak zeuzkan jantzita. Handia eta gihartsua; aurpegi estuan eta begi txiki urdinetan, indar zakarra eta kemen sutua zituen.

Hirugarrena, James Fordyce jauna, ondoko parrokiako zen, Cauldshawekoa, eta xehea eta argala zen; zurbila, osasun-arazoengatik edo gehiegi ikasteagatik. Arropa urdin zaharrez jantzita zegoen eta abuztuko eguzkipean ere, tapakia zeraman sorbalda gainean. Masailezur argalen uzkurdurak bekoki mehea zapuzten zion, eta ahoa zimeltzen zitzaion etengabe, zalantzatan edota minak balego bezala; baina begi marroiek itxura salbatzen zioten; neskato batenak bezain leunak eta malenkoniatsuak ziren.

Eguerdian, bazkaltzera eseri ziren.

*Jarraituko du...*